

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 256. alea - 2020ko azaroa



HEMEN DA **EUSKARALDIA**



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

*Calbeton*



JATEIXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**AUKERA  
INMOBILIARIA**

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

 Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunidadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlo.net](mailto:urlo@urlo.net)



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



# AURKIBIDEA

5

## ALBISTEA

Jaurlaritzak etxeratze ordua aurreratu eta ostalaritza-guneak ixtea agindu du



Arg.: Ander Salegi

6

## ELKARRIZKETA

Aser Alvarez protagonista  
*Debarrak Munduan* atalean



10

## ALBISTEA

550etik gora lagunek parte hartuko dute Deban eta Itziarren Euskaraldian



12

## ELKARRIZKETA

Itziar Arregik bikain Cum Laude lortu du haurren jolas librez diharduen tesiarekin




Arg.: Ainhoa Zubizarreta (Huhezi)

16

## B. GAZTEA

Elene Ramirezi elkarrizketa, ikasleen hausnarketak eta denbora-pasak



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

### ARGITARATZAILEA



### LAGUNTZAILEAK



Debaiko Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Asanbladaz asanblada, aurten bi hamarkada



Negua gerturazten ari da eta horrekin batera Debako Gazte Asanbladaren urtemuga ere bai. Urtemuga berezia da aurtengoa, ordea.

Berezia da aurten hogeitun urte betetzen baititugu. Auzolanez, borrokaz eta festaz betetako hogeitun urte. Baina berezia da, baita ere, bizi dugun egoerarengatik.

Asanbladako kideok hogeitun urte hauetako lana behar den modura ospatu nahi genuke herritar guztiak. Asmo horrekin, egitarau oparoa prestatuz joan gara azken hilabeteetan. Baina bat-bateko aldaketak eta egun bizi dugun egoera medio, ekimen gehienak bertan behera uztea edo atzeratzea beste erremediorik ez dugu izan.

Egia esan, onartu beharra dugu

konfinamenduak eta ondorengo egoera eta neurriek asanbladaren dinamikak erabat aldatu dituztela. Biltzeko zailtasunak izan ditugu, baita ekimen ezberdinak aurrera eramateko ere, hainbat ekintza azken momentuan bertan behera geratu dira eta ezjakintasun eta ziurgabetasuna izan dira nagusi asanbladan.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, gazte asanbladako kideok Gaztetxeari eta herriari bizitza ematen jarraitu nahi izan dugu, ahal den neurrian, eta egoera berrira moldatu beharra izan arren, ez gara gelditu. Lan horren fruitu izan dira, adibidez, YouTube bidez emititutako solasaldi gaztetxeroak eta kontzertu herrikoia.

Badakigu egoera hau zaila dela denontzat, baina asanbladak urtemuga hau zuekin ospatu nahi du eta, beraz, egungo neurriak bete eta denon segurtasuna bermatzeko asmoz, aur-

ten internet bidez (YouTubeko "Debako Gaztetxea" kanalean) ikusiko dugu elkar honako egunetan:

-Azaroaren 20an (ostirala), 18:00etan, hitzaldia: "*Borroka (geo)politikoak espazio post-sobietarrean*", Asier Blasen eskutik.

-Azaroaren 28an (larunbata), 22:00etan, Talka taldearen kontzertua.

-Abenduaren 19an (larunbata), 22:00etan, Martina eta Itsasoren kontzertua.

Distantzian baina zuekin ospatuko dugu urtemuga oraingoaz. Ziur gaude, dena den, gauzak hobetzean inoiz baino gogo eta indar handiagoarekin jarraituko dugula lanean eta behar den bezala ospatuko dugula hogeitun urteko ibilbide hau. Lehenik zuen etxeetan eta ondoren Gaztetxean elkartuko gara!

*Debako Gazte Asanblada*

## Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko bilera irekia

Gure herriko umeek ilusio handiz ospatzen duten eguna da abenduaren 24a, baina aurtengo egoera nahasian, pena handiz, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera formatu ezberdin batean egitera behartuta gaude. Horrez gain, gaur egun bete beharreko segurtasun-neurriek sortzen dituzten lan gehigarrietan laguntzeko ezinbestekoa izango da guztion parte-hartzea.

Hori guztia antolatzen laguntzeko

prest bazuade, azaroaren 27an (ostirala) 19:00etan Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan egingo den bilera irekian parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Ekitaldia ahalik eta irekiena izan dadin, prestaketetan parte hartu nahi duzuen herritar guztiak zaudete bilerara gonbidatuta; guztion ekarpenak izango dira aberasgarri eta garai ilun hauetan gure hurrek inoiz baino

gehiago eskertuko dute.

Beraz, badakizue, animatu! Etorri bilerara eta zabaldu deialdia zuen inguruan!

\*Bilera irekian segurtasun-neurriak beteko dira.

*Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea*

## Etixeratze agindua 22:00etara aurreratu eta ostalaritza-guneak ixtea agindu du Eusko Jaurlaritzak

Konfinamendua ezartzea ez -oraingoz, behintzat-, baina urriaren 26tik indarrean zeuden murrizketak zorroztea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Neurri murriztaile berriak hilaren 7an ezarri ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

COVID-19aren "transmisio kateak mozteko" neurriak Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) aholku batzordearen bileraren ostean iragarri zituen Iñigo Urkullu EAeko lehendakariak, Osasun Sailak eta batzorde horrek adostasunez hitzartu dituztela jakinarazita. Honako hauek dira gaur-gaurkoz, aldizkari honen edizioa ixtean, indarrean dauden neurriak:

- Gaueko 22:00etatik goizeko 06:00etara pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzea.

- Jarduera sozioekonomikoak 21:00etatik aurrera mugatzea. Merkataritza-establezimendu guztiei eragingo die; farmaziei eta gasolindegiei izan ezik.

- Kultur jardueretan edukiera % 35koa izango da.

- Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduak itxiko dira. Kanpoan geratzen dira hoteletako eta beste ostatu batzuetako jantokiak, egoiliarrei zerbitzua emateko. Jatorduak prestatu eta etxez etxe zerbitzatu ahal izango dira, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte. Gasolindegietan, osasun-zentroetan, zentro soziosanitarioetan, eskola-jantokietan, lantegi eta jantoki sozialetako zerbitzu-guneetan sartzen diren jatetxe-zerbitzuak ere salbuetsita daude.

- Kultura-jarduera, -ikuskitze edo -ekitaldi oro gaueko 21:00ak baino lehen bukatu beharko dira. Musika- eta ahots-entsegu kolektiboak edo dantza-entsegu kolektiboak, profesionalak ez direnean, bertan behera gelditzen dira.

- Taldekako edozein kirol-jarduera etetea, lehiaketa profesionala edo erdi-profesionala izan ezik. Debeztatuta dago kirol-ekitaldietara joatea. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea jarduerak fisikoa edo kirola hiri-inguruneetan egiten denean.

- Ikastaroak edo programatutako jarduerak gimnasioetan, kirol klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan egin daitezke;



Ander Salegi

betiere maskararekin egiten badira, gehienez sei laguneko taldeetan eta gehienez % 40ko edukierarekin.

- Joko- eta apustu-establezimenduak eta -lokalak ixtea. Eta beranduenez gaueko 22:30ean irten ahal izango da garraio publikoa lurralde historikotik. Salbuetsita dago taxia edo gidaria duen ibilgailuaren alokairua.

Urkulluren esanetan, neurriak azaro osoan egongo dira indarrean, eta hamabostean behin aztertuko dute hartutako neurriak zenbaterainoko eragina izaten ari diren.

### Ostalaritza babesteko mobilizazioak

SOS Ostalaritza plataformak hiriburuetarako deitutako mobilizazioekin bat eginez, Deban ere elkarretaratzea egin zen azaroaren 7an, ostalaritzari babesa agertu, ezarritako neurriak salatu eta sektorearentzako laguntzak aldarrikatuz. Tabernariak ez ezik, beste hamarnaka herritar ere hurbildu ziren Foruen plaza egindako mobilizazio jendetsura. "Laguntzarik gabeko itxierari ez" edota "SOS ostalaritza" zioten kartelak irakur zitezkeen.

Itxita egon arren, janaria etxera eramateko moduan prestatzen dabilta herriko hainbat eta hainbat taberna eta jatetxe.

### Udazkena

Joan zen negua, udaberria eta uda ere bai. Etorri zaigu udazkena, bai, joan dira kukuak, txinbeletak, enarak, bide bazterreko basalore dotoreak, barazki, fruitu eta lore usain goxoak, baita gure herri polit honetara etortzen diren udatiarrak ere, eta gure hondartzetan edo mendietan hartutako kolore beltzaran hori ere bai.

Baina ez kezkatu! Joan diren bezain eder edo hobeak badatoz, adibidez, uzta biltzeko garaia; arto, baba, gari, sagar, mahats, gazta, ur, intxaur, tipula, aza eta hainbeste eta hainbeste barazki, gero neguan jan ahal izateko.

Udazken arraro eta berezi honetan, gure

baserrian bat gehiago gara, astotxo polit eta eder bat jaio zaigu-eta; SUA bere izena, bera da gu denon ERREGINA.

Pantxika eta Perikok, hamabost urte elkarrekin pasa eta gero, kristoren maitasunaren ondorioz, etorri zaigu azkenean, lortu dute! Oso isilik zuten euren sekretua, gerri buelta oso potoloa zuen Pantxikak, baina nola guri umetan esaten ziguten asko jaten zutelako zela...

Orain bere amatxori esne goxoa edan ondoren, saltoka-saltoka etortzen zaigu Sua bere poz eta zoriontasuna adieraziz.



**REXU  
ARAKISTAIN**

iritzia



# Debarrak munduan

## ASER ALVAREZ

**Debarra izan arren, 18 urte daramatza dagoeneko Aser Alvarezek Sydneyen (Australia); pozik, bere emazte eta hiru seme-alabekin. Elektronika ikasi zuen lehenengo Eibarko Armeria eskolan eta, ondoren, bideo-produkzioa Andoainen. Gustuko ditu telebista-saio eta film onak, baina kirola ikustea ere bai, Erreal eta Tottenham Hotspurs taldeak ditu gogoko, baita errugbia ere.**

### Non zaude gaur egun? Zergatik?

18 urte daramatza Sydneyko auzo batean bizitzen. Nire emaztea Indian jaioa da, baina oso gazte zela Sydneyra etorri zen bizitzera. Berarekin maitemindu nintzen eta ondoren Sydneyra etorri nintzen.

### Hortaz, maitasunak eraman zintuen horra?

Bai, Londresen bizi nintzen, gaur egun nire emaztea dena ezagutu nuen han eta, berarekin egon nahi nuen, Australiara etortzeko erabaki zaila hartu nuen.

### Zertan zabilta orain?

Makinetako teknikari elektronikoko gisa nabil Australian lider den enpresa batean. COVID-19ak ez du eragin handirik izan Sydneyen, ezta nire lanean ere. Oso pozik bizi gara hiri eder honetan; nahiko garestia da, baina polita. Hondartza gertuago izango banu, hobeto.

### Espero zenuen bezalakoa da Sydney? Zerk harritu zintuen?

Londresen ia sei urte bizi ondoren, ingeles hizkuntzadun beste herrialde batera mugitzea erraza zen, ez, ordea, familia hain urruti izatea. Londresen garraio publikoa ona da, baina hemen Sydneyen, leku guztietara autoz goaz, distantziak handi-handiak baitira. Eguzkiaren distirak harritu ninduen lehenengoz, eta ia beti egunak eguzkitsuak direla ikusteak.

### Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ba, egia esanda, ez dut euskaraz inorekin hitz egiten. Egunkaria noizbehinka irakurtzen dut, edo noizean behin ETBko Teleberria ikusten dut, baina informazio hobea lortzen dut Twitter bidez.



### Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Australiako ingelesa pittin bat desberdina da. Argot hitz asko erabiltzen dituzte, birao asko botatzen dituzte, eta hizketan entonazio desberdina dute. Hirian ia ez dugu australiar indigenarik ikusten. Hizkuntza indigena, oro har, galtzen ari da. Hala ere, hiriko toki askok izenak indigenengandik hartu dituzte: Parramatta, Coolangatta, Wollongong, Billabong, Narrabeen, Coogee,...

### Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

San Rokeak, dudarik gabe. Baina barbakoak eramango nituzke Debara. Hemen, txoko guztietan egiten dituzte barbakoak: parkean, balkoian, etxeko patioan...

### Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez. Orain nire bizitza hemen dago, nire emaztearekin eta seme-alabekin. Barkatu, ama, aita eta *sister*, hain urrun joateagatik.



## Laburrean:

### Paisaia bat:

Hondartza, jende gutxirekin

### Usain bat:

Itsasoko urarena

### Zapore edo jaki bat:

Olagarroa eta bokeroiak ozpinetan

### Gustuko ditut...

Lagun eta janari onak

### Ez ditut gustuko...

Harrokeria eta faxismoa

### Amets bat:

Erraza, COVID-19a desagerraraztea

## Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin bat geurean ere



Iaz azaroaren 25ean egindako elkarretaratzea.

Aho batez onartu zuen udalbatzak osoko bilkuran azaroaren 25ari begirako adierazpen instituzionala eta, ondorioz, "Azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela-eta, Debako Udalak bere egin du gure lurralde, herrialde eta herriak indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitzeko ardura".

Konpromiso batzuk ere hartu ditu, prentsa ohar batean azaldu duenez. Besteak beste, "Debako Udalak Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du" eta "Udal honek ez du murrizketarik egingo 2021eko Berdintasun batzordeko aurrekontuetan eta beharrezkoak diren parti-

dak handituko ditu". Horrez gain, mugimendu feministak azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekimenetan parte hartzeko deia ere egin du.

Aurtengo egitaraua azaroaren 13an abiatu da geurean, Beldur Barik lehiaketaren sari-banaketarekin.

Azaroaren 21ean (larunbata) "Otsandreak korrika" helduentzako ipuin-kontakteta saioa eskainiko du Amaia Zinkunegik Agirre jauregiko ispiluen gelan, 19:00etan. Urtero bezalaxe, azaroaren 25ean (asteazkena) emakumeenganako indarkeriaren aurkako mobilizazioa izango da, 19:00etan Foruen plazan. Eta azaroaren 27an (ostirala) helduentzako antzerki emanaldia izango da, 18:00etan Itziarko Burugorri: "Esnatu naiz" kabareta (Elur Sorkuntza Etxea). Sarrerak eskuratzeko: (943 19 92 55 / [itziarkoauzoudala@gmail.com](mailto:itziarkoauzoudala@gmail.com)).

Egitarauari amaiera emanez, hilaren 29an (igandea) berdintasunaren inguruko ipuinen kontakteta saioa eskainiko dute Debako Kontalariak haurrentzat (7-12 urte bitartekoentzat). Agirre jauregiko ispiluen gelan izango da, 17:00etan.

## Emakume defendatzaileei buruzko erakusketa izan da udaletxean



Azaroaren lehenengo astean Tragameluz kolektiboaren (Chiapasko argazkilaria independentek) "Irudiak, olerkiak eta beste belar batzuk" erakusketa egon da ikusgai udaletxean, Lumaltik Herriak, Berdinak Gara eta Kooperaziorako Euskal Agentziak sustatuta, eta Egitenen eskutik.

Erakusketaren bitartez, El Salvador, Honduras, Guatemala eta Chiapasen lurraldearen eta giza eskubideen defentsaren aldeko borrokan emakumearen



papera aldarrikatu nahi izan dute antolatzaileek.

Argazki-erakusketa #ozenesan kanpainaren baitan antolatu dute. Kanpainak agerian jarri nahi du komunitateetako emakume defendatzaileen lana, baita publikoki salatu ere "sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalak emakume defendatzaileen eta beraien lurraldeen kontra inpunitate osoz egindako indarkeria-ekintza sistematikoak".



LANDER ARANBERRI

### Mikel

Ni naiz, gu gara. Hain antzerakoak itxuraz, hain bateraezinak dira sarriegi. 2020 urte bitxi honek *La Muerte de Mikel* pelikula ikusteko beta eman dit. Filmagatik baino, dituen dikotomienatik nuen ikusteko gogo, soka-luzekoak, gaur egun ere: norbere askapena eta klasea, herria eta hiria, tolerantzia eta onarpena...

Mikel ataka estuan dago filmean: farmazia, lagunak, familia eta militantzia, edo homosexualitatearen onarpena. Aukeratu egin behar du; txutxumutxuek, begiradek eta mehatxuek ez diote ezertarako tarterik uzten. Edo aske izan, edo lasai bizi. Biak aukerazterik ez dago. Oraindik, *bat inun loturik deino, ez gara libre izango* kantatzen dugu. Ezberdinak, toleratu ere egiten ditugu (nazka eman arren, *sic.*). Zeinen modernoak garen.

Bat inon loturik deino... zeinen erraz hitz egiten dugun. Zein erraza den ezberdina toleratzea, norberak gogoetarik egiten ez duen bitartean. Ez omen ditugu ikusten. Ez da bada izango ez ditugula ikusi nahi? Are gehiago; ez da bada izango ez *garela* ikusi nahi? Gu ere ez ote gara Mikel izango? Ez ote gara ezgauza geure buruak kuestionatzeko? Beldur al gara?

Naiz eta gararen artean, askatasunaren eta erosotasunaren artean, zulo handia dugu oraindik ere. Bai Euskal Herri osoan, baita Deban ere. Loturik ez bizitzeko, geure burutik askatzen hastea ez legoke gaizki. Gure barneko Mikeli hegan egiten uztea. Konfinamenduek ordu askotarako ematen dute. Agur bero bat Mikel gutiei. Ea askatasunean benetan sinesten hasten garen.



## Errigorako saskiak azaroaren 25ean jaso ditzakete zuhatzakideek

Azaroaren 25erako (asteazkena) prest izango dituzte Zuhatza elkarteko bazkideek aurtengo Errigoraren kanpainan erosi dituzten saskiak. Ifar kaleko bulegoan jaso beharko dituzte eskaerak, 9:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bertaratzeko arazoak izanez gero, 943 19 13 83 edo 688 840 308 telefono zenbakietara deitu dezakete.

Nafarroa hegoalde eta erdialdean, euskara ofiziala ez den zonaldeetan, euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua egiten dion ekimen herritarra da Errigora. Horretarako, Nafarroako hegoaldeko produktuz osatutako saski ezberdinak jartzen dituzte salgai. Aurten, lehendabizikoz, kanpainarekin bat egin da Deban eta Zuhatza elkarteko bazkideek aukera izan dute euren eskaerak herrian bertan jasotzeko. 60tik gora saski banatuko ditu Zuhatzak.



Asteotan hasi dira biltzen Debako mintzalagun taldeak. Aurreko urteetako dinamika mantenduz, urrian zabaldu zen egitasmoan izena emateko epea eta momentuz hiru talde daude martxan: lehenengoa asteleheneretan 16:30ean elkartzen da, bigarrena asteartean 17:45ean, eta hirugarrena ostiraletan 11:00etan. Dena dela, oraindik ere egin daiteke bat egitasmoarekin; izen-ematea doakoa da eta ikasurte osoan dago irekita. Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du programa, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean.

Euskaraz hitz egin ohi duten pertsonak euskaraz egin nahi duten pertsonekin euskaraz aritzeko elkartzen dituen egitasmoa da Mintzalaguna. Parte hartzaileen artean talde txikiak

egiten dira eta astean behin ordubetez beraien aisialdi garaian elkartzen dira paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko.

Bi modutara parte hartu daiteke. Alde batetik, euskara praktikatu nahi dutenak daude (bidelariak), eta bestetik, bidelagunak, bide hori egiten laguntzen duten pertsonak, hain zuzen -baterako zein besterako eman daiteke izena-. Mintzalagun bihurtzeko baldintza bakarrak hauek dira: euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea.

Parte hartu nahi dutenek Zuhatza Euskara Elkartearen bulegora jo beharko dute. Deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira, idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera edo bete izen-emate fitxa [labur.eus/Zuhatza\\_Deba](http://labur.eus/Zuhatza_Deba) helbidean.

## Laburbira eta Jose Mari Makazagaren hitzaldia bertan behera

Koronabirusaren hedapena gelditzeko ezarritako neurri eta gomendioak kontuan hartuta, Zuhatzak bertan behera utzi ditu udazken honetarako antolatuta zituen bi hitzordu:

Laburbira euskarazko film laburren zirkuituaren emanaldia eta Amaia San Sebastian zuzendariarekin solasaldia (urriaren 29an), eta Jesus Mari Makazaga euskaltzain urgazlearen

hitzaldia (azaroaren 26an).

Dena dela, egungo egoera hain aldakorra dela ikusita, elkarteak ez du baztertzen emanaldiak aurrerago eskaini ahal izatea.



## Bi eta hamaika urte bitarteko haurrentzat zaintza-zerbitzua eskaintzen hasi dira

Baliabide ekonomikorik, sare sozialik zein familia-sarerik ez duten familiei, hauek lanean dauden bitartean edota beste premiazko egoeraren bat dutenean, haurren zaintzan laguntzea du helburu martxan jarri berri den zerbitzua. Elvira Garrido fundazioak eskaini eta Debako Gizarte Zerbitzuek bideratuko dute Deba eta Itziarko bi eta hamaika urte bitarteko haurrak dituzten, eta lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten familiei bideratutako laguntza hau.

Gaztelekuaren gaineko lokalak atondu ditu Udalak haurrak artatu ahal izateko. Aire librean ere egingo dituzte ekimenak. Alde batetik, haurrak eskolatik irtetzen direnetik, tutore/tutoreak lanetik zein beste premiazko egoeraren

batetik etxera heldu bitartean haurren kargu egingo dira hezitzaileak. Bestetik, gaixo daudenean zein COVID-19aren ondorioz konfinatuta badaude, zaindu egingo dituzte hezitzaileak.

Oinarri batzuen baitan lan egingo dute proiektuan parte hartuko duten pertsonak. Aritz Larrañaga Ongizate politikaren zinegotziaren esanetan, "osasun fisiko zein emozionala bermatzea da helburua. Horretarako, elikadura osasuntsua eskainiko zaie, higieena zaintzen lagundu, eskolako lanak egiten ere laguntza izango dute. Baina, ez hori bakarrik, haurren adimen emozionala ere zaindu nahi da, baliabide gutxi dituzten haurrak ere hazi eta hezi daitezten osasuntsu, seguru eta baliabide emozionalaz ongi hornituta".

## 60 harrera-familia behar dira Gipuzkoan

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ikusgaitzak* kanpaina abiatu du, babesgabetsun egoeran dauden haur eta nerabeentzako 60 harrera-familia aurkitzeko helburuz. Aldundiaren esanetan, egun 414 haur eta gazte bizi dira Gipuzkoako

harrera-familiatan -338 adingabeak dira, eta beste 76k harrera-familiatan bizitzen jarraitzen dute adinez nagusi izan arren-. Beste 60 familia behar dituzte, hainbat arrazoi direla medio, euren familian hazi ezin diren haurrentzako.

## Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiko lanak urte bukaeran hasiko dituzte



Arg.: Martin Lores

2018ko uztailaren 5ean amildutako zubiaren kalteak konpontzeko lanak urte amaieran hasiko direla iragarri du Debako Udalak.

Aurreikuspenen arabera, behin obraren esleipena eginda, lanak 41 astean egingo dituzte. Tarte horretan, piezaz pieza eta harriz harri desmuntatuko dute zubia, eta berriro eraiki, jatorrizko planoaren arabera. Bigarren faseko lan hauetarako aurrekontua hiru milioikoa da.

Debako eta Mutrikuko udalek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Foru Aldundiarekin eta akordio horri esker egin ahal izango dira orain bigarren faseko lanak. Hitzarmenaren arabera, Aldundiak bere gain hartuko du fase berri honetako obraren finantzaketaren ardura.

iritzia

### A zer nolako urtea!

2020. urtea gure oroitzapenen kutxan luzaroan iltzaturik geratuko da, eta ez justu bizipen zoragarrien atalean. Hilabete geratzen da urtea amaitzeko, baina ez dut esperantza faltsurik egin nahi, ez dirudi eta horretarako abagunerik sortuko denik.

Urte berriko kanpai hotsekin batera, Asia urruneko berriak iritsi zitzaizkigun. "Lekutan dago! Ez da berehala etorriko gugana!"... Uste baino lehen hemen genuen, ordea, ate-joka. Itxialdia ezarri ziguten, une hartan neurritz kanpokotzat jo nuena, eta 15 eguneko izan behar zuena maiztzerarte luzatu zen. Udaberriko egun asko leihotik begira pasa genituen askatasunarekin amets egiten.

Fase aldaketak etorri ziren gero, kalera irteteko arau frankorekin. Denok hasi ginen gure askatasunerantz korri eta saltoka, libre izango ginela amesten genuen bitartean. Uda sasoi zetorren; eguraldi ona, inguruko herrietako jaiak, lagunarteko afa-riak... Itsasoko kresala sentitu nahi genuen gure

azala ferekatzen... Orduan konturatu ginen ez zela guk desiratutako uda idilikoa iritsi, ez zela guk hain gogotsu irudikatutako askatasuna; arau berriz inguratu gintuzten, tartean-tartean aldatzen joaten zirenak. Jaiak bertan behera, kirol jardunak ere antzera...

Udaren akaberan, nahi baino gertuago sentitu genuen herriko zenbait denda eta taberna berrogeialdian sartu beharra; merkatarien ezinegon aurpegia; hedabideetatik iristen ziren berriek ere ez ziguten esperantzarako zirrikitu handirik ematen; Osasun langileak mesedez ozen oihukatuz itxialdia ezartzeko, Hezkuntzakoak baliabide eske, garraio publikoan jende anabasa gehiegi... Beldur naiz udako bi hilabete haiek amets huts izan ez ote ziren, normaltasuna etorri zela sinetsarazi nahi izan ziguten, baina oraindik isats luzea utziko duen sententzia da.

Baina, tira! Behintzat ez du Trumpek irabazi AEBetan!



EIDER ZULAIKA

# EUSKARALDIA

# GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

## PARTE HARTZAILEAK:

# 552

Deban: **468**  
Itziarren: **84**



## DEBA

AHOBIZI: **390**  
BELARRIPREST: **78**

**GUZTIRA: 468**

Emakumezkoak: **327**  
Gizonezkoak: **136**  
Ez-binarioak: **5**

## ADIN-TARTEA

16-30: **96**  
31-50: **197**  
51tik gora: **175**

## ITZIAR

AHOBIZI: **75**  
BELARRIPREST: **9**

**GUZTIRA: 84**

Emakumezkoak: **47**  
Gizonezkoak: **33**  
Ez-binarioak: **3**

## ADIN-TARTEA

16-30: **20**  
31-50: **44**  
51tik gora: **20**

\*Azaroaren 10ean eguneratutako datuak



## Zergatik erabaki duzu Euskaraldian parte hartzea?

Zergatik aukeratu duzu *Ahobizi* edo *Belarriprest* izatea?



### XABI BERASALUZE | AHOBIZI

Herriak betidanik suaren inguruan bildu izan dira. Gure herriaren sua euskara da; elkartuta mantentzen gaituena, herri egiten gaituena eta pixkanaka itzaltzen ari da. Milaka urtetan zehar piztuta bizirau duen sua itzaltzen utziko duzue? Nik ez behintzat. Ni, beti bezala, *Ahobizi* izango naiz. Eta zu?

### AMAIA AYASTUY | BELARRIPREST

Erdarazko harreman batzuk aldatu nahi ditudalako eta Euskaraldiak hori praktikan jartzeko aukera emango didalako erabaki dut parte hartzea. *Belarriprest* izango naiz gaur egun harreman dezente ditudalako erdaraz eta badakidalako, oraindik, ezingo diedala horiei guztiei euskaraz eutsi. Horietatik 2-3 euskalduntzea lortzen badut, helburua beteta ikusiko nuke aurtengoz. Hurrengoan beste 3 eta, pixkanaka-pixkana, gero eta gehiago euskalduntzen joatea da asmoa.



### ITZALE LAKA | AHOBIZI

Nire egunerokotasunean euskaraz erosoago aritzen naiz eta ez daukat lehenengo hitza euskaraz egiteko arazorik. Nire inguruko pertsona gehienek euskaraz ulertzen eta hitz egiten dute. Hala ere, harreman hauetako batzuk gazteleraz egitera ohitu naiz. Dinamika hauek aldatzeko erabaki dut *Ahobizi* bezala parte hartzea Euskaraldian.

### LUCIA RUIZ | BELARRIPREST

Euskaraz gehiago eta gehiagorekin egin nahi dudalako hartuko dut parte Euskaraldian. *Belarriprest* txaparen bitartez, euskaraz dakiten guztiei niri euskaraz hitz egiteko eskatu nahi diet. Nik, ahal dudan neurrian, euskaraz erantzungo diet eta ezin dudanean, gaztelaniaz. Uste dut horrela ate berriak ireki ditzakedala: orain arte erdaraz izan ditudan harreman batzuk euskalduntzen joango naiz, eta horixe da nahiko nukeena.



## ITZIAR ARREGI LANDA



Arg.: Ainhoa Zubizarreta (Huhezi)

## “Jolas librean umea ondo bizi da, plazeretik eraikitzen da eta gai sentitzen da, ez helduaren itzalean eta hari atsegin eman nahian”

**Itziar Arregi Landa itziartarra da, 1977an jaioa. Pedagogia ikasi zuen eta ordutik ez dio ikasteari utzi. Ibilbide profesionala helduekin abiatu zuen arren, tartean hartutako erabakiek Haur Hezkuntzara (HH) ekarri dute.**

**Gaur Huhezin (Mondragon Unibertsitatea) ari da lanean, Hazitegi ikerketa taldeko kidea da, eta Haur Hezkuntzako graduako irakasle izateaz gain, ikerketan ere ari da. Bere ikergai nagusia jolasa da une honetan.**

“2-6 adin tarteko haurren jolas libreari buruzko kasu azterketa bat” doktoretzatesiarekin bikain Cum Laude lortu duzu. Zergatik jolas librea gaitzat?

Ikerketa Hazitegin kokatzen da; Hazitegi haurraren ongizate eta garapenaren inguruan gabiltzan ikerketa talde bat gara. Haurra ulertzeko metafora asko erabili izan dira; guztia xurgatzen duen esponja bat dela, bete beharreko edalontzi huts bat dela..., metafora horiek ez ditugu gustuko, haurra hazi bat bezala ikusten dugu guk, genetikoki garatzeko potentzialitate osoa duena. Testuinguru egokia eskaintzen badiozu era batera garatuko da, bestela, beste batera. Hazitegin garapena ulertzen dugu umeak dakarren horretatik, eta hortxe ikusten da haurrak, eta baita beste espezie-tako kumeek ere (txakurkumeek, katakumeek, moxalek...), garatu ahal izateko jolasa erabiltzen dutela. Helduaroan beharko ditugunak garatzeko darabilgu jolasa. Eskolak daukan formatuarengatik jolasa nahiko kutsatuta dagoela ikusi genuen. Ikusi nahi genuen nolakoa den eskolako jolas hori eta nolakoa den umeak dakarre-

na, horrela, gako batzuk identifikatu eta jolasaren espazio hori hobetzen joateko. Eskolan berrikuntzak indarra hartu du HHtik; paretak bota eta espazioak ireki dira, baina gero zenbateraino behatzen dugu umeak nola erabiltzen dituen espazio horiek?

**“Haurra hazi bat bezala ikusten dugu guk, genetikoki garatzeko potentzialitate osoa duena”**

**Behar beste baloratzen al dugu jolas librearen garrantzia?**

Baloratu denok, umea ondo ikusten den espazio bat delako. Baina zenbat da nahikoa denbora jolas liberako? Haur Hezkuntzako irakasleei galdetzen badiezu denek esango dizute oso garrantzitsua dela, baina batzuek ordu-erdi eskainiko diote eta beste batzuek hiru ordu, badago alde!

Beraz, ematen zaion garrantzi horretan eta jolasa ulertzeko moduan ere badago alde.

**Zergatik da hain garrantzitsua? Zein funtzio betetzen ditu jolas libreak haurraren garapenean?**

Berezkoa da eta garapen sozial, kognitibo eta motorea ahalbidetzen ditu, baita sormena, komunikazioa eta autokontrola ere. Baina hori dena baino garrantzitsuagoa da jolasean umea ondo bizi dela, plazeretik eraikitzen dela eta gai sentitzen dela, ez helduaren itzalean eta berari atsegin eman nahian. Ez dago gaizki jolasteko modurik, porrotik, inork ez diete esaten zer egin behar duten eta gai eta ondo sentitzen dira. Hori da umeari eskaini diezaiokegun altxorrik onena, ondo pasatzea. Nahi ditugu etorkizunean zoriontsu, eta esaten diegu “orain esfortzatu zaitetz gero zoriontsu izateko”, baina orain esfortzatzen badira gero esfortzua bilatuko dute. Gero ondo bizitzeko bizi zaitetz ondo orain, ondo bizitzeko baita ondo bizitzen.

**Joku arautua oso ezagun zaigu egun-**

go gizartean, libreza ez hainbeste...

Berez, umearen garapenean lehenengo azaltzen dena libreza da. Gero, jolasera ume gehiago biltzen doazen heinean intuitiboki nolabaiteko arau inplizituak ezarri behar izaten dituzte. Adibidez, suhiltzailea banaiz jolas sinboliko horretan eta sagarrak saltzen hasten banaiz, albokoak esango dit: "suhiltzaileek ez dituzte sagarrak saltzen". Partaideak gehitzen doazen neurrian taldeak funtzionatu ahal izateko arau arbitrario horiek gero eta explizituago eta adostuagoak egiten dituzte. Haur Hezkuntzan, adibidez, joko arautuak gustatzen zaizkigu helduoi umeei erakusteko, baina helduaren arbitraje edo presentziarik gabe ez dago joko arauturik, 5-6 urteak arte. Orduan garapenean lehenengo dator libreza eta gero, poliki-poliki, simulaziotik sartuko dira arautuan.

**Esango zenuke helduok eta haurrek "jolasa" ulertzeko modu berbera dugula?**

Ez. Helduon artean ere ez dugu berdin bizi, ulertzen, eskaintzen...; heldu, guraso, aiton-amonak eta irakasleen artean ere ez. Irakasle askorentzat jolasa da irakaskuntzarako tresna instrumentalizatua, ez da hain libreza, baina jolasa da beraien hautematean. Guk "jolasa" eta "jokoa" bereizten ditugu, bigarrena arautua litzateke. Kultura denean jolasten da eta hitz bat dauka, baina desberdin jolasten da gaitasuna antzekoa izan arren, testuingurua eta kultura desberdinak direlako. Kontzeptualizazioa izan da tesi honetako lanik zailena. Zenbat jolas mota daude? Adituak ez datoz bat.

**Zer egin dezake helduak haurren jolasa ez baldintzatzeko?**

Ulertu beharko genuke zer den jolasak umearen garapenari ekartzen diona. Zer jartzen du jokoa haurrak jolasten "denean", haurrak bere buru osoa jolasten baitu, bera jolasten da. Hori ulertu eta aukera eman umeari behar duen horretarako. Bestela, ondo ulertu gabe, huskeria bat dela irudituko zaigu agian edo atsedenean dagoela. Umea beti dago garatzen! Behin hori ulertuta, nola kutsatu gutxiago? Espazio, denbora eta baliabideak eskainiz. Horretarako, jakina, helduaren presentzia eta hautematea beharko da.

**Hezkuntza sisteman zein leku du jolas libreak? Eta zer deritzozu?**

HHko curriculumean ezagutza dauka, Lehen Hezkuntzakoan askoz gutxiago. Eskola erakundea bera industri iraultzaren garaian ezagutza jakin batzuk behar zirelako

## **"Umea eskolaz kanpoko jardueretara daramanak badaki jolasa garrantzitsua dela, kontua da zenbat..."**

sortu zen, eskaera ekonomiko bati erantzuteko, beraz. Hortik heredatu dugu, esaterako, indar asko jartzea hezkuntzan ezagutzen transmisio horretan. Baina noiz arte behar da jolasa? Haurtzaroan diote adituek... LHko azkeneko urteko umeak ere libre uzten badi-tuzu jolasean hasten dira, ez da kasualitatea.

**Azken hamarkada hauetan, Europako korronteari jarraiki, hezkuntza-eredu desberdinak agertzen ari dira Euskal Herrian ere.**

Dokumentatzea beti da interesgarria, baina ezin ditugu ereduak hartu, ekarri eta aplikatu. Hezkuntza testuinguruari lotutako zerbait da, neurritan egin beharrekoa. Batzuetan badirudi sailheste egiten dugula geurea erabakitzeke tarte hori besteena erositik, ardurari ihesean bezala. "Etor dadila aditu bat esatera nola egin behar dugun...", baina gero, sarritan, ez du espero bezala funtzionatzen. Erronka bat daukagu hor. Eskola bakoitza mundu bat da, nahiz eta denak delegaritzaren txapelpean egon. Tokatzen bazaizkizu pare bat irakasle Montessoriko masterra egin dutenak ukitu hori egongo da... Hezkuntzan hiru maila daude: dekretu bidez datozen baldintzak, eskola mailako erabakiak, eta irakasle bakoitzak bere taldean hartzen dituenak. Orain, bestalde, paretak bota direnetik, agian zailagoa da hori, eta adostasunetara iritsi beharra dago; beste erronka bat.

## **"Gero ondo bizitzeko bizi zaitez ondo orain, ondo biziz ikasten baita ondo bizitzen"**

**Eta zer iritzi duzu eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez?**

Helduon behar bati erantzuten diote. Lan mundura sartzeko momentuan izan ditugun hutsuneetatik eraiki nahi diegu

gure umei curriculum. Hori batetik, eta bestetik, gizartean kontziliazioarekin daukagun mantra dago. Horrek nolabait erantzuten dio zaintza behar horri. Oso gai konplexua da. Seguru nago jolasa garrantzitsua dela badakiela umea jarduera horietara eramaten duenak, kontua da zenbat... Nire sententzia da umeak heldu baten begirada eta gidaritzapean denbora gehiegi pasatzen duela, eta ikasten duela heldu horri atsegin eman eta hark behar duenari erantzuten.

**50. hamarkadatik hona jolas libreak behar bada izan duela dio zenbait adituk. Haurren jolasa gutxitu izanak egungo gizartean izandako ondorioak ikertu al dira?**

Ikertu da bai, gertatzen dena da jolasa gutxitzearekin batera beste hainbat gauza oso garrantzitsu ere gertatu direla, teknologia berrien sarrera, ordutegi aldaketa... Zenbateraino egotz dakioken jolasari bakkari... Egia da, bestalde, kointziditu duela psikopatologiak dispartatearekin... Esperimentu batean, sagu batzuei haurtzaroko jolasa ukatu zieten eta beste batzuei baimendu, eta bi taldeak konparatzean ikusi zuten jolasa ukatutako saguen garunaren neurria txikiagoa zela jolastu zutenena baino. Hau da, jolasak, plazerak, mugimenduak aukera ematen du garuna ere garatzen joateko.

**Aholkurik bai bizi dugun osasun pandemia honetan?**

Itziarren, adibidez, parkeak itxi zituztenean umeak gainerako espazioak okupatzen hasi ziren, eta zuhaitzetan sokak jartzen kulunkatu ahal izateko. Parkea prezintatu eta umeek herri osoa okupatzea esanguratsua da. Zein da beraien espazioa munduan? Beharrezko al du plastikozko eta kautxozko zerbait, pentsatutakoa? Edo naturala egingo du, enbor bat hartu, lijatu eta moztuz? Non eta zertan irudikatzen ditugu? Hamsterrak gurgpilean korrika bezala?

**COVID-19a dela eta haurrei jarritako neurriek eraginik izan al dezakete etorkizunean?**

Eragingo dute, bai. Berritoki ere, beste gauza batzuk gertatu dira horrekin batera; sozialak eta humanistak diren zientzia hauetan oso zaila izaten da aldagaiak definitu eta isolatzea. Pentsa... etortzen dira aztarnariak eta bederatzi urteko umea ez dela positibo baina badaezpada ere gelan isolatzeko eskatzen dizute... Horrek, zalantzarik ez, bere inpaktua du!

Deba-Itziar

# BIRA



Debako Udalak, Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Zuhatzta Euskara Elkarateak elkarlanean antolatutako lehiaketa berri honetan gure herriaz zenbat dakizuen erakusteko aukera izango duzue.



**1.** Nola deitzen dira Lasturko Duquesa harrobitik ateratzen diren bi harrien koloreak?




**2.** Zein da ezkerreko argazkian agertzen den idazlea?

A) Milia Lasturkoa    D) Tene Mujika  
B) Goizane Aizpurua    E) Ane Arrinda



**3.** Zein da Pablo Sorozabalen *Irugarren kalez-kale* (*Debako martxa*) abestiaren jatorrizko izena?



**4.** Zein da ezkerreko argazkian agertzen den erreka izena?

A) Lasturko erreka    D) Osioko erreka  
B) Maruko erreka    E) Arbil erreka



**5.** Deba-Itziarko zein baserrik ekoizten du txahal-haragia eta salmenta zuzena egiten?

**6.** Diamante formako zenbat harri egin zituen Debako Patxi Albizu "Soarte" harginak Arantzazuko santutegia janzteko?



A) 15000  
B) 5000  
D) 7000  
E) 100000

**PARTE HARTZEKO:** [www.labur.eus/BIRA\\_azaroa](http://www.labur.eus/BIRA_azaroa)

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Deba-Itziarko komertzioetan gastatzeko  
**40 euroko bost bono**  
banatuko dira

Parte hartzaile guztien artean

Deba-Itziarko komertzioetan gastatzeko  
**20 euroko hamar bono**  
zozketatuko dira

**Erantzunak bidaltzeko azken eguna: abenduaren 7a**

Irabazleen izenak abenduko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**



# GAZTEAK *idazle*

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarateak elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanetako bat duzue hemen. Bigarren zikloko bigarren saria irabazi zuen ondorengo ipuinak. Irakurketa on!

## MIA

Txikitatik ohituta nengoen ingurukoak nitaz gaizki esaka entzutera. *-Arnasa hartzen dut- "Mia txoriburu bat da!", "Ez hurbildu Miarengana edo bere gaixotasuna hartuko duzu!", "Kakati halakoa!"*.

Hori guztia umekeriatan borobiltzen nuen. Eguneroko ekintza bihurtu zen, eta ni seguru nengoen hura ez zela aldatuko. Nagusiago egiten ginen heinean, burlak eta mespretxuak ere bai. *-Eskuak altxatzen ditut berak erruki aurpegia jartzen duenean-*

Ez konfunditu, ez dut nahi zuk nitaz pena sentitzea; kontatu behar dizudana ez doa hortik.

Ispilura begiratuta ikusten nuen: ni neu. Eguzkia bezain ile horia, aldaka baino pixka bat gorago geratzen zena. Gorputz nimoñoa 16 urte izateko. Eta irribarrez, nahiz eta hura ez zen nire begietaraino iristen. *-Barre ahula agertzen da nire aurpegian-*

Hitza oso azkar zabaldu zen herritik. Zoratuta nengoela. Bakarrik hitz egiten nuela eta gauza arraroak egiten hasi nintzela. *-Burua atzera botatzen dut, zentzugabea dela adieraziz-* Eta ba al dakizu zer? Guztia gezurra zen. Ez nengoen zoro, ez nuen bakarrik hitz egiten, eta gauza arrarorik ere ez nuen egiten.

Urtero, mespretxu berriak pentsatu behar izaten zituzten ni baztertzeko. Eta pixkanaka ohitzen hasi nintzen, kalean zehar joaten nintzenean jendea niri begira geratzen baitzen.

Zu batzuetan agertzen zinen, nire adiskide bakarra. Ez nizun ezertxo ere kontatu, ez kezkatzeko.

Gurasoei laguntza eskatzea bururatu zitzaidan, baina isilik gelditu ziren. Segundo bat izan zen arren, niretzat eternitatea izan zen. Muxu txiki bat eman zidan masailean amak, aitak beste bat buruan, eta ezer esan gabe logelatik irten ziren, nire kezkarri jaramonik egin gabe. Hurrengo egunetan, eztabaidan entzun nituen, ia gauero. Eta beti, "...Mia..." entzuten nuen. Ez nuen jakin nola ulertu hori. Agian tontakaria bat zen? Agian denborarekin dena konponduko zen? *-Momentu batean isildu egiten naiz-* Agian... ni nintzen arazoa? Garrantzi handirik ez ematea erabaki nuen. Azken finean, bizitzak denok jarriko gaitu gure tokian.



Zurekin gelditzen hasi nintzenean, bakardade sentazioa pixkanaka joaten hasi zen. Gogoratzen al zara itsasoaren soinuaz haitzetan esertzen ginenean? Han bakea arnastu genezakeen. *-Eskuak hartzen dizkiot, oso eskertuta nagoela adierazteko-* Arazoa zen etxera iristen nintzen bakoitzean gurasoek txoratuta nengoela esaten zidatela.

*-Nola bururatu zaizu haitzetara bakarrik joatea!- oihukatzen zuten. Ez nuen ezer ulertzen. Zurekin nengoela azaltzen nien, baina orduan ere ez zidaten jaramonik egiten. Itsaso aldera joatea debekatu zidaten, eta apirilaren 23a izan zen olatuen ahotsa entzun nuen azken eguna. -Malko bat harrapatzen dut nire masailean-*

Sentitzen dut hau guztia. Egun batean desagertu egin nintzen eta ez zenuen nitaz ezer gehiago jakin. Gurasoekin hitz egiten saia... *-Bat-batean, amak logelako atea ireki eta isilarazi egiten nau. Logelan zehar begirada bat botatzen du, bekainak elkartuz-*


*-Mia, laztana, zeinekin ari zara hitz egiten?*

*Ane Gonzalez*

## ELENE RAMIREZ:

**"Gimnasia erritmikoa kirol gogorra da, baina ondo uztartzen dut ikasketekin"**

Zortzi urterekin hasi zen Elene Ramirez gimnasia erritmikoan, Eibarko Ipurua kiroldegian. Hamalau urte ditu orain eta 3. DBHko ikaslea dugu Mendatan



**Nolatan hasi zinen gimnasia erritmikoan? Zeinen ideia izan zen?**

Nire amarena. Aurretik sinkronizatuan eman nuen izena, Donostiako Karmelo Balda kiroldegian, baina oso txikia nintzen eta lehenengo egunean utzi nuen. Horren ondorioz, nire amak gimnasia erritmikoan apuntatu ninduen, Susana izeneko irakasle batekin, eta urte batera A alebina izateko aukera eman zidaten. Bi aldiz pentsatu gabe baietz esan nuen. Handik denboraldi batera, Base mailara igo ninduten, horrek Espainiako txapelketan parte hartu beharko nuela esan nahi zuen, eta ordutik orain arte.

**Zenbat orduz entrenatzen zara astean?**

Hamasei orduz entrenatzen naiz eta gero, asteburuetan, txapelketaren bat izaten dut eta txapelketa bakoitzean lauzpabost ordu egoten gara.

**Oso kirol zorrotza al da? Zaila egiten al zaizu bes-telako gauzekin uztartzea?**

Esango nuke kirol gogorra dela, baina ondo uztartzen dut ikasketekin eta horrek ere laguntzen dit. Denborarik ez daukadanean, Eibarrera bidean egiten ditut etxeko lanak.

**Zer moduz daramatzazu txapelketak?**

Momentu honetan ez oso ongi egia esan; aurrekoan Espainiako txapelketa izan behar nuen, baina nire kideak infantilak direnez, ezin dira lehiatu. Hala ere, orokorrean ongi daramatzat txapelketak, hasieran urduritasun pixka batekin, baina denbora pasatu ahala ongi.

**Zein izan da zure txapelketarik gustukoena?**

Euskal GYM txapelketa; Espainia osoko jendeak parte hartzen du, baina Euskal Herrian egiten da. 146 klub egon ziren lehian hiri mailan. Hirugarren postua lortu genuen azkenean, sufrututa baina lortu. Hori izan zen gure azken txapelketa eta orain arteko ibilbidean izan dugun garrantzitsuenetakoa ere bai.

### Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieto, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:





## ZER MODUZ DARAMAGU IKASTURTEA MENDATAKO IKASLEOK?

Hona hemen lekukotasun batzuk:



Aurtengo ikasturte hau, dudarik gabe, beti gogoratuko dugun urte horietakoa izango da, inoiz errepikatuko ez den horietakoa, edo hori espero.

Aurten gauza asko aldatu dira, gehiegi; musukoak, distantzia sozialak, gel desinfektatzaileak nonahi, etxera joan eta irteteko ordutegiak... Baina kalean ez ezik etxean eta lanean ere izan ditugu aldaketa nabarmenak: temperatura hartzea, konfinatuta gelditzea, teknologia berriekin lan egin behar izatea...

Hala ere, bere onurak ere izan ditu egoera honek: teknologiarekin lan egiten ikasi dugu eta aplikazio berriak ezagutu (*Meet, Classroom, Hangouts...*), elkarri errespetua izaten ere ikasi dugu askok distantziak mantenduz, musukoak jantziz, egon garen tokiak desinfektatuz...

Azkenean asko ikasi dugu, baina nahiago genuke berriro ez errepikatzea egoera.

Duela bi hilabete ekin genion 2020-2021 ikasturteari eta guztiz arraroa izan da, COVID-19arekin bete behar diren protokolo guztiak jarraitu behar izan ditugulako.

Aurten ordenagailuak inoiz baino gehiago erabiltzen ari gara galdeketak, azterketak... egiteko, etxetik zein klasean.

Jolas-orduak atseginagoak egiten zaizkit, saski-baloian, boleibolean... aritzeko aukera izaten dugulako eta musika ere entzun ahal izaten dugulako.

SARTU AURRETIK ESKUAK GARBITU!



MASKARILA DERRIGORREZKOA SARTZEKO!

## DENBORA-PASAK

### #IZKI-ZOPA




Aurkitu ondorengo lau irudiei dagozkien hitzak


h	d	m	r	q	p	u	o	a
k	m	p	o	r	r	o	t	x
l	p	s	r	e	n	a	j	l
i	g	w	u	q	f	t	e	ñ
p	i	o	x	a	t	w	h	b
j	z	u	h	a	i	t	z	a
t	b	o	k	i	u	s	t	p

### #IEROGLIFIKOAK

GORPUTZEKO  
ORGANO BAT:



2



NOLA DEITZEN  
DA NESKA HORI?

A, E, I, U

**AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 4RA**  
**EUSKARALDIA: gure hizkuntza-ohituretan eragiteko ariketa soziala**

**AZAROAK 20, OSTIRALA**

-18:00. **Hitzaldia:** "Borroka (geo)politikoak espazio post-sobietarrean", Asier Blasen eskutik, YouTubeko "Debako Gaztetxea" kanalean.

**AZAROAK 21, LARUNBATA**

-19:00. **Ipuin kontaketa helduentzat:** "Otsandreak korrika" (Amaia Zinkunegi), Agirre jauregiko ispiluen gelan.

**AZAROAK 25, ASTEAZKENA**

-19:00. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako **elkarretaratzea**, Foruen plazan.

**AZAROAK 27, OSTIRALA**

-18:00. **Antzerki emanaldia** (helduentzat): "Esnatu naiz", Burugorri eraikinean.

-19:00. **Bilera irekia** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera antolatzeko (Zuhatzaren bulegoan).

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

**AZAROAK 28, LARUNBATA**

-22:00. **Kontzertua:** Taldea bertsiotze talde akustikoa, YouTubeko "Debako Gaztetxea" kanalean.

**AZAROAK 29, IGANDEA**

-17:00. **Ipuin kontaketa** 7-12 urte bitartekoentzat, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

**ABENDUAK 19, LARUNBATA**

-22:00. **Kontzertu akustikoa:** Martina eta Itsaso, YouTubeko "Debako Gaztetxea" kanalean.

**Zuzeneko hitzaldiak KZgunean**

-KZgunean zuzeneko hitzaldiak eskaintzen jarraitzen dute, horretarako YouTubeko "KZguneaTIC" kanala baliatuta. Astero IKTei buruzko hitzaldi berriak izaten dira, euskaraz eta gaztelaniaz (ordu-erdiko iraupena izan ohi dute). Hitzaldiak ikusi ahal izateko, interesa duten pertsonak interneterako konexioa baino ez dute behar, sarrera libre a izango baita. Informazio gehiagorako: [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria edo 943 02 36 29 / 945 01 61 00 telefono zenbakiak.

**Beka-deialdia**

-XV. **Tene Mujika beka** sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus) ataria.

**Aholkularitza-zerbitzua**

-Pertsona autonomoei eta ETE txikiei (10 langile baino gutxiago) laguntzeko aholkularitza-zerbitzua jarri du abian Debegeesak, Debabarreneko Garapen Agentziak. Enpresaren egungo egoera aztertzea, negozioaren diagnostia egitea, etorkizuneko urratsak finkatzea eta diru-laguntzen/laguntza-programen berri ematea da programaren helburua. Informazio gehiagorako: [ekintzaile@debegesa.eus](mailto:ekintzaile@debegesa.eus) helbidea edo 943 82 01 10 telefono zenbakia.

**Mailegu zerbitzua udal liburutegian**

-Ostolaza udal liburutegian eskatutako liburuak, pelikulak... jasotzeko ordutegia ondorengoa da: astelehen eta ostegunetan: 8:30-13:30 eta 17:00-19:00 / asteartean, asteazken eta ostiraletan: 8:30-14:30.

**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abenduak 4, 5, 6.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 20, 21, 22.**  
**abenduak 18, 19, 20.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 5 eta 12

BURGOA ZUAZO: azaroak 21 eta 28 / abenduak 19

**9:30 - 13:00**

**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
 Odontologia orokorra,  
 kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
 Tel.: 943 192 819  
 20820 Deba

Jarri zure publizitatea  
 Berriketan aldizkarian!

*Zuhatz*

**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

**Uzuri**  
 optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
 ZAINTZEN**

Ostolaza, 7  
 20820 DEBA  
 Tel: 943192192

RPS: 1853/12

LIZ.-ZK.: 3 **TaxiAlain Deba** WiFi

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus) **636 135 008**  
alain@taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**  
**DEBA**

Tel.: 677 557 615

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**A D**

**ASESORIA DEBA**  
Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 21/05/049  
NIVEL 2

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxes: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**lerarena**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20 - E-mail lerarena@gmail.com

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**k**  
kutxabank

**sasoi**iko  
ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknika terapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



mintzalaguna

# ELKARREKIN

euskara bizi, erabili



IZEN EMATEA:

[labur.eus/Zuhatza\\_Deba](http://labur.eus/Zuhatza_Deba)

Zuhatzaren lokalean | 943 19 13 83

Antolatzaileak



Babesleak



ELKAR ZAINDUZ, ERANTZUKIZUNEZ

